

2020-21 ikasturtea

## LHko Guraso Batzordea: 6. buletina (2021.03.17)

LHko Guraso Batzordearen 2020-2021 ikasturteko seigarren bileran ondorengo gaiak landu dira.

### **Teknologia berriak eta sare sozialak: ikasle zein familientzako formazioa**

Guraso Batzordearen azken bileran adierazi zen Ikastolak, beharra ikusita, teknologia berrien eta sare sozialen gaineko formazio-saioak antolatuko zituela langile, ikasle zein familientzako. Gurasoek oso begi onez jaso zuten asmoa.

Zehaztu da formazio saioen egutegia. Familientzako saioak maiatzaren 5ean (euskaraz) eta 6an (gaztelaniaz) izango dira Linoko jolastokian, 18:00etan.

### **Ikastolako Ikasle Eredua: gurasoen parte-hartzea definizio prozesuan**

Ikastolako Ikasle Ereduaren gainean hausnartzeko familiekin egingo den saioa apirilaren 19an izango da (Linon, 18:00etan). Deialdia guraso guztiek jasoko dute Alexiaz.

### **LHko antolaketa pedagogiko berria**

Ikastola burutzen ari den hausnarketa pedagogikoari jarraiki, datorren ikasturtetik aurrera bi etapa egongo dira LHn:

- Hazten etapa (LH1, LH2 eta LH3)
- Heltzen etapa (LH4, LH5 eta LH6)

Hazten etaparen amaieran ikastaldeak berrantolatzeko aukera egongo da, baita ikasleren batek ikasturtea errepikatze beharra ote duen aztertzea ere.

Hazten zikloan, HHn lantzen den metodologiari jarraipena emango zaio. Heltzen-en, berriz, EKI metodologian murgilduko dira ikasleak.

Etaparen antolaketa berriaz gain, zuzendaritza orain arte DBH hasieran erosi izan den Chromebook ordenagailua LH 6. mailan erosteko aukera aztertzen ari da.

### **Ikastolako tarifa eta beka sistemaren gaineko hausnarketa**

Ikastolako Bideragarritasun Batzordeak kuoten eta tarifen inguruan egin duen azterketa sakonaren berri eman da. Hurrengo Batzar Nagusian gai horren gaineko proposamena aurkeztuko da, bazkideek oniritzia eman diezaioten. Gaia guraso guztiei behar den bezala azaltzeko bilera informatiboa egingo da apirilean, Merkatuzarren. Gurasoek desadostasunak azaldu dituzte proposatutako neurri batzuekin eta apirileko bileran ahots guztiek tokia izatea bermatuko da.

## **Gurasoen ekarpenak**

### **BASO-ESKOLA**

Baso-eskolan ibiltzen diren ikasleek akainak izatea ohikoa omen dela diote guraso batzuek. Horiek horrela, kasu horretan nola jokatu behar den azaltzen duen bideo edo informazio-orri bat eskertuko luketela diote.

Curso 2020-21

## Consejo de Madres y Padres de LH: boletín nº6 (17.03.2021)

En la sexta reunión de la Comisión de Madres y Padres de LH del curso 2020-2021 se han tratado los siguientes temas.

### Nuevas tecnologías y redes sociales: formación para alumnado y familias

En la última reunión de la Comisión de Padres y Madres se indicó que la Ikastola, detectada una necesidad, organizaría sesiones de formación sobre nuevas tecnologías y redes sociales para trabajadores, alumnado y familias. Los padres y madres recibieron la propuesta con muy buenos ojos.

Se ha definido el calendario de las sesiones formativas. Las sesiones para las familias tendrán lugar los días 5 (euskera) y 6 (castellano) de mayo en el patio del edificio de Lino, a las 18:00 horas.

### Modelo de Persona de la Ikastola: participación de las familias en el proceso de definición

La sesión con las familias para reflexionar sobre el Modelo de Persona de la Ikastola será el 19 de abril (en Lino, a las 18:00 horas). La convocatoria la recibirán todas las familias por Alexia.

### Nueva organización pedagógica de LH

Siguiendo con la reflexión pedagógica que se está llevando a cabo desde la Ikastola, a partir del próximo curso habrá dos etapas en LH:

- Etapa Hazten (LH1, LH2 y LH3)
- Etapa Heltzen (LH4, LH5 y LH6)

Al final de la etapa “Hazten” se podrán reorganizar las clases y estudiar si algún alumno o alumna tiene la necesidad de repetir curso.

En el ciclo “Hazten” se dará continuidad a la metodología que se trabaja en HH. En “Heltzen”, las y los alumnos se adentrarán en la metodología EKI.

Además de la nueva organización de la etapa, la dirección está estudiando la posibilidad de adquirir el ordenador Chromebook en LH, dispositivo que hasta ahora se ha adquirido al iniciar DBH.

### Estudio de las tarifas y el sistema de becas de la Ikastola

Se da cuenta del exhaustivo análisis de cuotas y tarifas realizado por el Comité de Viabilidad de la Ikastola. En la próxima Asamblea General se presentará una propuesta al respecto para que las y los socios den su visto bueno. El próximo mes de abril se celebrará en Merkatuzar una reunión informativa para mostrar el estudio y las propuestas realizadas a todos los padres y madres. Algunas familias han expresado sus desacuerdos con algunas de las medidas propuestas. En la reunión de abril se garantizará que todas las voces puedan mostrar su opinión.

## Aportaciones de las familias

### BASO-ESKOLA

Según algunas familias, es habitual que las y los alumnos vengan de la baso-eskola con garrapatas. Por ello, dicen que agradecerían un vídeo o folleto informativo sobre cómo actuar en este caso.